

## Eguraldi kaxkarra Ibilbideen egunean

Ostadar Kirol Fundazioko Mendiko Saileko kideek ibilbide guztiak egin zituzten

**A**tzo, igandea, ospatu zen Buruntaldeko Ibilbideen III. Eguna. Egitasmoa hau lehenengo aldiz 2007an antolatu zuten Buruntaldeko Udalek, bigarreniaz izan zen eta arrakasta ikusirik hirugarrena antolatzea erabaki zuten. Gainera aurten Lasarte-Oriako gainerolegiak zuten antolaketaren ardura.

Pena izan zen jeiki eta eguraldi txarra ikusi izana lehiotik; giro hori ikusita, seguruenik bat baino gehiago, nagikeriak jota, ez zen animatuko ibilbideren bat egitea, baina hala ere, jende ugari bildu zen eguraldiari aurre eginez inguruko herritako paisai eta bidezidorrak ezagutzeko eta gozatzeko asmoz.

### Ibilbide osoa

Goiztiarrenak Ostadar Kirol Fundazioko Mendiko Saileko kideak izan ziren. Hauek goizeko zortzietarako abiatu ziren ibilbide guztiak egiteko asmoz; Lasarte-Oriatik Usurbilera joan ziren, handik Andoainera, Urnietara eta berriro Lasarte-Oriara.

Eguerdi aldera eguraldiak hobera egin zuen eta aterteaz gain eguzkia ikusteko aukera ere izan zen.

Eguerdi 12ak alderako, 92 lagun pasa ziren Lasarte-

Oriako kontroletik, hauen artean, Andoaindik ateratako hiru familiek osatzen zuten kuadrilla, haur eta guzti. Andoaindik atera eta Urnietara jo zuten, gero Lasarte-Oriara eta hemendik Usurbilera. Andoainera oinez itzultzeko asmoa zuten, haurrek eusten bazieten, eta hauen esanetan oso gustura ari ziren ibilbidea egiten eta oinez amaitzeko asmoa zuten.

Bestalde, Urnietatik abiatutako boskote bat ere bi aldiz pasa zen herriko kontroletik, izan ere Urnietan hasi, Lasarte-Oriatik pasa, Usurbilera, berriro Lasarte-Oriara eta autobusa hartu ez hartu zalan zatan egon baziren ere, giro onak animatuta oinez itzuli ziren Urnietara.

Lasarte-Oriatik 61 partaide abiatu ziren eta guztira Lasarte-Oriako kontroletik 127 lagun pasa ziren, txartelak zigilatu, dagokionari kamiseta jaso, mokadutxo bat jan edo zerbait edateko. Esan beharra dago, eguna hain goibel esnatzeko, jende asko animatu zela eta antolatzaileak pozik agertu ziren parte-hartzearekin. Aurtengoan euriak ez badu asko lagundu ere, jende ugari animatu zen, ea laugarren edizioan eguraldiak laguntzen duen. •



Goizeko zortziretan eta euriaren abiatu ziren Ostadarreko Mendiko Saileko kideak ibilbide guztiak egiteko asmoz.



Eguraldiari aurre egin eta lagun asko animatu ziren ibilbideak egitera. Irudian Urnietatik Usurbilera joandako boskotea bueltan.



Urriaren 31n ospatuko da Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia XV. edizioa /4

### KIROLA /2

**Miriam Infante** futbol jokalaria gaztea Holandan izan da Europako Txapelketan



*Punto de Encuentro* tabernako dardo jaurtitzailak Holandan /5



# Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

**Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.:943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com

Miriam Infante Futbol jokalaria

# “Ondo ibili naiz Europako Txapelketan”

■ Lehenengo aldia zenez, aulkian egon beharko zuela uste bazuen ere hiru partiduak jokatu ditu  
 ■ 17 urte azpiko sailkapen torneoan jokatu du Holandan ■ Bi gol sartu zituen Georgiaren aurka

Miriam Infante futbol jokalaria urriaren 9an itzuli da Holandatik. 17 urtez azpiko Espainako selekzioarekin jokatu du 2011ko Europako Txapelketarako sailkatze-torneoan Georgia, Bielorrusia eta Holandaren aurka. Hiru partiduak irabazi zituzten, hiruetan jokatu zuen partidu osoa Lasarte-Oriako jokalaria gazteak eta lehenengoan bi gol sartu zituen. Oso esperientzia polita bizi izan duela esan digu Miriam Infantek. Aurten ere Ostadarreko kadete mailako nesken taldean jokatzen du eta gainera Emakumeen SuperLigan den Errealeko jokalariekin batera entrenatu.

Jon ALTUNA

**R**otterdamdik gertu, Riddererk herrian jokatu da 2011ko 17 urtez azpiko Emakumeen Europako Futbol Txapelketara sailkatze lehen fasea España, Holanda, Bielorrusia eta Georgiaren artean. Miriam Infante eta lagunak, lehenengoak sailkatu eta aurrera egin dute: 2011ko udaberrian jokatuko dute bigarren fasea sailkatu diren 16 taldeek launaka eta udan jokatuko dira finalerdi eta finala.

## Zer moduz Herbeheretan? Torneoko txapelidunak izan zarete?

Oso pozik nago, esperientzia izugarria izan da, nire bizitzako hoberena; asko ikasi dut bai futbolari bezala, bai pertsonalki.

**Non egon zarete, zein hiritan?** Riddererk hirian geunden, baina beste hiri batzuk ere bisitatu ditugu, esaterako Amsterdam eta Rotterdam. Futboleko jokatzeaz aparte, hiri hauek ere ezagutu ditugu. Beraz, bidaia, oro har, oso ondo egon da.

**Hiru partidu ziren eta hiruk oso osorik jokatu zenituen... Pozik egoteko modukoa, ezta?** Bai, 240 minutu jokatu ditut, 80 minutuko hiru partidu eta oso pozik nago. Hara joan nintzen aulkian egongo nintzela pentsatuz, baina azkenean hiruetan jokatu dut.

**Lehenengo, Georgiaren aurkakoa, erraza izan zen ezta?** Bai, erraza izan zen, 13-0 irabazi genuen.

**Eta Bielorrusiaren aurkakoa?** Zailagoa izan zen. Estu ibili ginen, beste taldeko 11 jokariak bere arean jokatzen zuten, beti defenditzen, eta lehen zatian ez genuen golik

egin, baina bigarren zatian indartsuago ateratu ginen eta 2-0 irabazi genuen.

**Zailena etxekoan aurkakoa,...** Azken partidua zaila izan zen, baina bagenekien Holanda oso talde indartsua dela eta partidu zaila izango zela. 70. minutura arte ez genuen gola egin.

## Bi gol sartu zenituen lehen partiduan, zenbatgarrenak eta nolakoak izan ziren?

Hirugarrena eta bosgarrena. Lehenengo golean, eskumatik egindako erdiraketa hankarekin errematatu nuen, eta bigarrena nire jokaldi bat izan zen, ezkerretik, pase luze bat jaso, hiru defentsen artean aurrera egin eta eskumarekin sartu nuen gola. Bigarrena politalgoa izan zen.

**Gustura geratu al zara egindako jokoarekin?** Bai, hiru partiduetan egindakoekin oso pozik eta gustura nago.

## Estatistiketan, bosgarrena zaude atera jaurtiketa gehien egindakoen artean?

Bai, Europako txapelketa batean izateko kopuru handia da eta gainera jaurtiketa garrantzitsuak izan dira. Azken partiduan Holandaren aurka, gola sartzea zaila zen, handiak eta indartsuak zirelako, baina jaurtiketa asko egin genituen.

## Ez duzue golik jaso, defentsan ondo, ezta?

Bai oso ondo jokatu dute eta presiotik oso ondo ateratu dira baloiarekin.

## Ostadarren erdian jokatzen duzue, ezkerretik, selekzioarekin aurrelari?

Ez, han ere erdilari izan naiz. Fitxan aurrelari nintzela jartzen zuten, baina erdian ezkerretik jokatu dut.



## Ezkerra izateak laguntzen al du? Jokalari gutxiago al daude postu horretarako?

Beti horixe galdetzen diot neure buruari. Agian bai, ezkerrean jende gutxiago dago,... ez dakit.

## España da Europako txapeliduna izatik, jokalaria berriak al zarete ala asko daude txapelidun izan zen taldekoak?

16 urtez azpiko munduko txapelketa duela gutxi jokatu duten neskek, ez dute Europako jokatu: Ameriketako denbora asko egon diren jokari hauen artean, gehienak adinaz pasatzen dira eta beste batzuk agian jokatuko dute geroago. Taldea berria zen beraz.

## 2011an berriro Europako txapelidun bila ?

Bai, orain torneoa irabazita 16ren barruan sartu gara, gero 2011ko udaberrian bigarren fasea jokatuko da, launaka, eta udan azken fasea, finalerdiak eta finala. Ea suertea dugun.

## Partidu hauetan jokatzeo itxaropena izango duzue, ezta?

Bai, debutatu eta gero, lehen baino gehiago. Zelaian esperientzia gehiago ere badaukat.

## 15 urterekin gazteenetarikoa zara taldean, ezta?

Bai gehienak 16 urtekoak

dira, beste bizpahiru eta nik ditugu 15 urte.

## Zer moduz Angel Vilda entrenadorearekin?

Oso gustura, oso entrenadore ona da, partiduen aurrean motibatu egiten gintuen eta hori gero gure jolasteko eran ere nabaritu du.

## 15 egun etxetik kanpo, ez al zaizu luzeegi egin?

Hasieran pentsatzen nuen oso luze egingo zitzaidala, baina azkenean ondo pasatzen duzu, giroa ona da, partiduak irabazten dituzu eta animazio horrekin denbora ere azkarrago pasatzen da. Oso gustura egon naiz, bai lagunekin, bai futbolarekin eta baita entrenadorearekin ere.

## Gurasoak ez dira Holandako torneo honetan zu ikusten egin, ezta?

Ez, orain dute joan, baina internetetik jarraitu dute txapelketa. UEFAren orrialdean sartzen ziren, emaitza eta partiduko jokaldien berri izateko. Eta gero niri deitzen zidaten telefonoz.

## Aurreko astean, Madrilen kontzentratu zineten,...

Bai bost egun egon ginen, entrenamendu gogorak egin genituen, fisikoak eta jokaldiak prestatzekoak.

## Ba al dago beste euskaldunik selekzioan?

Lorena Valderas, Eibarko aurrelaria, eta Andrea De la Nava, Bilboko atezaina.

## Pixkanaka lagun taldea osatu duzue alde guztietako jokalariek, ezta?

Bai lagun onak egin ditut. Talde giro ona zegoen.

## Irailaren 25ean joan aurretik 12-0 irabazi zenuten, zenbat gol sartu zenituen?

Bai, Ostadarrek 12-0 irabazi zuen Santo Tomas Lizeoaren aurka. Sei gol sartu nituen.

## Ostadarren nesken talde nagusian jokatuko al duzue?

Hori ez dakit. Aurten kadetea naiz adinez eta gero jubenila.

## Eta Errealarekin entrenatzen duzue, jokatzeo asmorik eta aukerarik ba al duzue?

Ez, oraingoz, Super Ligaxkako neskekin entrenatzen ari naiz, baina ez dut jokatuko oraindik. Esan didate gaztea naizela, entrenatzeko eta lasai hartzeko. Etorrizunean ikusiko da. Agian lagunarteko partiduren bat jokatuko dut.

## Zer moduz DBH2n ikasketak?

15 egun galdu ditut, baina ondo noa: eteko lanak gutxi gorabehera ondo daude eta azterketak egitea falta zait. •





Ana Urcheguiak alkatetzat uztean, Somoto kasuan ardurarik ez zuela saihestuko adierazi zuen.

## Somotoko auzia, azken fasean

Udaleko langile, zinegotzi eta alkate ohiak deklaratu dute Ikerketa Batzordean, baina Nikaraguan laguntza jaso zuten erakundetako kideek, ez, oposizioak hori eskatu zuen arren

Somotoko irregulartasunei buruzko Ikerketa Batzordearen lana azken fasera iritsi da. Somoto hiriko Udalarik, eta Nikaraguako beste bi elkarteri hainbat urtetan Lasarte-Oriako Udalak emandako diru-laguntzei buruz Udalean sortu zen batzordean deklaratu dute jada Udaleko langile eta ordezkariak, azkenak urriak 4an eta 8an, Iñaki Mugica eta Ana Urcheguiak hurrenez hurren. Udaleko oposizio alderdiek Nikaraguan laguntza jaso zuten erakundetako ordezkariak deklaratzeko eskatu bazuten ere, hauek ez dira Batzordearen aurrean izan.

Nikaraguako Somoto herriak eta Lasarte-Oriak, 1997ko ekainaren 14an sinatu zuten anaitze hitzarmena. Orduetik Udalak hainbat kooperazio laguntza bideratu ditu nazioarteko herri ezberdinetara esaterako Argeria, El Salvador eta Perura, baina batez ere diru laguntza horiek Somotora bidali ditu anaitze hitzarmen honi esker.

Proiektu ezberdinei eman die laguntza Lasarte-Oriako Udalak, baina gehienak txiratasun eta behar larriei aurre egiteko proiektuak izan ziren: etxebizitzak egiteko, urakanen ondorioak konpontzeko, eskolak egin eta laguntzeko, kultura bultzatzeko... eta oro har, hiru erakundek jaso dituzte, Ohlos (Oficina de Hermanamiento Lasarte-Oria Somoto) bi herrien arteko harreman bulegoak, Asodecom (Asociación de Desarrollo Comunitario) Garapen Elkarteak, eta Somotoko Udalak berak.

Somotoko alkate Marcio Rivas zen Asodecom elkarteko lehendakari ere. Elkarte honi aurretik ere irregulartasunak leporatu zizkieten, esaterako Errioxako fiskalak aztertu zituen, Errioxako Gobernuaren bitartez, Bake, Desarmatze eta Askatasunaren aldeko Mugic

zirenean, Lasarte Oriako Udal Batzarrak, kooperazioari bideratutako diru-laguntzen inguruko Ikerketa Batzordea sortzea erabaki eta 2009ko abenduan osatu zen. Oposizio taldeek salatu dutenez, eskatutako hainbat informazio ez dituzte jaso eta pertsona konkretuen agerraldiak ez dira onartu. Oposizioak horrela eskatu bazuten ere, Somotoko udaleko, Asodecom edo Oholos-eko arduradunek ez dute agerraldirik egingo ikerketa batzordean.

### Irregulartasunak

Ohlos bulegoak ere jasotzen zuen Lasarte-Oriako diru laguntza, pertsonalitate juridikorik ez bazuten ere. Azken hilabeteotan zabaldu denez, Lasarte-Oriako agintariak bazekiten diruz lagundutako proiektuak kudeatzen zituen bulegoak ez zuela beharrezko nortasun juridikorik.

Lasarte-Oriako Udaleko agintariak urteetan zehar hiru erakunde hauek aurkeztutako hainbat proiektu onartu zituzten, 2009ko azaroan, txosten baten bidez, Ion Murua Udaleko kontu-hartzaileak Somotora bideratutako diru-laguntzak ongi justifikatuak ez zeudela eta irregulartasunak zeudela jakinarazi zuen arte. Gipuzkoako fiskaltzak, aldiz, ez du delitu zantzurik ikusi eta irregulartasunak egotekotan, hauek jurisdikzio administratiiboari dagozkiola adierazi du.

Irregulartasunak ezagutu

zirenean, Lasarte Oriako Udal Batzarrak, kooperazioari bideratutako diru-laguntzen inguruko Ikerketa Batzordea sortzea erabaki eta 2009ko abenduan osatu zen. Oposizio taldeek salatu dutenez, eskatutako hainbat informazio ez dituzte jaso eta pertsona konkretuen agerraldiak ez dira onartu. Oposizioak horrela eskatu bazuten ere, Somotoko udaleko, Asodecom edo Oholos-eko arduradunek ez dute agerraldirik egingo ikerketa batzordean.

Lasarte Oriako udalak, 2010eko uztailan Nikaraguako Deloitte enpresa independentea kontratatu zuen, aldiz, Somotora bideratutako proiektu eta laguntzen inguruko auditoria egiteko.

2010ko otsailean Ana Urcheguiak dimisioa aurkeztu zuen eta orduetik Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria da Peru eta Txilen. Dena den, alkate ohiak kargua uzterakoan ardurarik ez zuela saihestuko adierazi zuen eta batzordearen aurrean deklaratu du urriaren 8an.

2010ko ekainean, hilabete-ko atzerapenarekin hasi ziren Ikerketa Batzordearen aurrean agerraldiak. Hasieran Euskara, Kultura eta Hezkuntza eta Kiroletako teknikariak deklaratu bazuten ere, gerora laguntzekin harreman estuagoa zutenak pasa dira batzordetik, Xabier Ejea udaleko idazkaria, Ion Murua kontu-hartzailea, Aitor Moreno kooperazio teknikaria eta Natividad Del Hoyo, Zerbitzu Sozialetako zuzendaria. Ondoren PSEko ordezkariak deklaratu dute, Lurdes Acevedo Zerbitzu Sozialetako lehendakariak, Iñaki Mugica alkate ordeak eta Ana Urchegui alkate ohiak.

LANAK

### Loidiko tunela eta ibai ondoa itxiak

Saneamenduko kolektore interteptore orokorraren lanekin jarraituz, bihar, urriak 19, trafikoztatutako itxiko dute Loidi kaleko N-1 errepide azpiko pasabidea, hau da, Adurizeko lurrazpiko pasabidea eta hiru astez ezingo da bertatik igaro.

Era berean, beste lan batzuk aurreikusita daude ibai ondoak pasealekuan, Hipodromo Etorbidearen eta Ola Kalearen artean. Horren ondorioz, oinezkoentzako pasabidea itxita egongo da gune horretan bi hilabetez gutxi gorabehera.

Alkatetzak barkamena eskatzen du sortu daitezkeen eragozpenengatik. •

ODOL-EMAILEAK

### Oria Beheko bilkura egingo da Adunan

Hurrengo igandean, urriaren 24ean, Oria beheko eremuko odol-emailek hitzordua dute Adunan. Bertan Lasarte-Oriako herritarrez gain, Aduna, Aia, Andoain, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Hernani, Ibarra, Irura, Orio, Tolosa, Urnieta eta Usurbilgoak ere bilduko dira urteko bilkura egin eta odol-emailei omenaldi xumea egiteko.

Aduna, zizurkil eta Villabonako odol-emaileen ordezkariak antolatuta, goizeko 11:00etan, Andre Maria Jasokundearen parrokian meza izango dute nahi dutenek. Ostein, 25, 40 eta 50 odol-emari egin dituzten emailei oroigarri eta diploma banaketa egingo zaie eta odol-emaile bikainei ere omenaldia egingo zaie. Eguna modu ezin hobean amaitzeko, 14:00etan bazkaria izango dute Adunako Aburuza sagardotegian. •

ERKETZ E.D. T.

### Dantzaren Lagunak taldea lanean da

Erketz Euskal Dantza Taldeak entsegu irekiak aurkeztu nahi ditu Dantzaren Lagunak taldearen bidez. 15 urtetik gorakoentzat daude bideratuak saio hauek. Beraz, plazan gogoarekin begira ez geratzeko, orain da zure aukera.

Dagoeneko entsaioak hasi dira; asteartero izango dira, urriaren 19tik aurrera, arratsaldeko 20:00etatik 21:30era Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Zumaburuko eraikinean. Doan da eta parte hartzeko entsaioa azaldu besterik ez duzu, animatu! •



Dantza Lagunak taldeak entseguak hasi ditu, hauetan hainbat dantza ikasiko dituzte.

IPIUIN KONTALARIAK

### Ipuinaren ordua Koruko Zurutuzarekin

Asteazkenean, urriaren 20an, arratsaldeko 18:00etan, Manuel Lekuona kultur etxeko haurren liburutegian, *Ipuinaren ordua*ren saio berria egongo da. Oraingoaz, 6 eta 8 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzendua egongo da. Hauek Koruko Zurutuzaren ipuin harrigarriak ezagutzeko aukera izango dute.

Ikasturte honetako, ipuin kontalarrien orduko bigarren saioa da hau. Ipuin kontaketa guztiak 18:00etan hasiko dira. Honetaz gain, Korukoren esku dauden sei eta zortzi urtekoen saioak, urriak 20, azaroak 17 eta abenduak 1ean izango dira.

Lasarte-Oriako Udalak jakin arazi duenez, baldintza gutxi batzuk bete beharko dira ipuin kontalarrien saioetan, hala nola, saioetara puntual iristea, programan azaltzen diren urteak errespetatzea, behin ipuina hasi eta gero gelatik ez ateratzea eta haurrak bakarrik egotea. •

# Abian da XV. Kros Herrikoia

Urriaren 31n ospatuko da eta izena emateko epea gaur zabalduko da

Ostadar Kirol Fundazioak ostiral iluntzean aurkeztu zuen Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia. Lasterketa urriaren 31n izango da, goizeko 10:30ean hasita –elbarrituak pixka bat lehenago aterako dira– eta hasi aurretik Erketz Euskal Dantza Taldeko dantzariak agurra dantzatuko diete korrikalari guztiei. “Modu horretan partehartzailerak guztiak omendu nahi ditugu, ez soilik irabazleak”, eman dute aditza Ostadar Kirol Fundaziotik. Aurreko edizioan bezala irteera eta helmuga puntua Ostadarek Geltoki kaleko 25. zenbakian (futbol zelaiaren ondoan) duen egoitza inguruan izango da eta parte-hartzaileek 10 kilometroko ibilbidea bete beharko dute.

## Lasterketa Herrikoiek Ligan

XV. edizioan bada berrikuntzarik. Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia “Lasterketa Herrikoien Igo Ligarako” puntuagarria izango baita. Lehiaketa horretan parte hartzeko behar beharrezkoa da txip horia eramatea. Lasarte-Oriakoarekin batera beste bederatzita laster-

ketek osatzen dute Liga: Jose-txo Imaz Memorialak, Zumaia Zakila Birak, Hiru hondartzetako lasterketak, Donostiako 15 kilometrotakoa, San Juan de Luz-Hondarribik, Behobia-Donostiak, Azkoitiko Herri Krosak, Donostiako Maratoia eta Donostiako San Silvestrestreak.

## Izen-ematea

Aurkezpen ekitaldian aurreratu zuten, izen-ematea gaur bertan, urriaren 18an, zabalduko da. Hortaz, korrikalariak bi aste epea izango dute dortsalak jasotzeko, baina antolatzaileek “azken unera arte ez itxaroteko” eskaera egin diete.

Izena emateko aukera ugari daude. Geltoki kaleko 25. zenbakian Ostadar Kirol Fundazioak duen egoitzan asteleheneetik ostiralera (17:00etatik 20:00etara) eta larunbatetan (11:00etatik 13:00etara) egin daiteke; [www.ostadarkf.org](http://www.ostadarkf.org) web orrialdean; 943 360433 telefono zenbakian; lasterketa egunean Mitxelingo frontoian (9:00etatik 10:00etara) eta kirol denda hauetan: Decath-



Aurkezpenean Eulogio de la Serna eman zion 1 dortsala Santos Uriberri.

lon (Donostia), Shanti Kirolak (Tolosa), Aralar Kirolak (Tolosa), Apalategi (Donostia eta Zumarraga), Robers (Donostia), Easo Sport (Donostia), Laister Kirolak (Donostia), NereSport (Zarautz) eta Leire Sport (Irun).

Izen-emateak 10 euro balio du –Ostadarreko bazkideentzat, 6 euro–, eta azkeneko egunerako uzten dutenek, 15 euro ordaindu beharko dituzte. Era berean, korrikal-

riek lasterketa amaitzean itzuliko zaizkien 5 euroko fidantza ere ordaindu beharko dute, aurten ere denborak txiparekin neurtuko baitituzte.

## Kros Txikia

Nagusien lasterketa eta sari-banaketa ekitaldia amaitzean, 12:15ak aldera, Kros Txikiaren hamargarren edizioa hasiko da. Antolatzaileek bost eta hamalau urte arteko 800 korrikalari inguru espero

dituzte –aurten kopurua zabaldu egin dute–. Sei mailatan banatu dituzte, eta adinaren arabera 100, 150, 400, 800 eta 1.200 metroko ibilbideak osatu beharko dituzte. Izen-ematea Ostadar Kirol Fundazioaren egoitzan egin behar dute.

Haur bakoitzak 4 euro ordaindu behar ditu, eta trukean, kamiseta bat, domina bat eta edateko jogurt bana jasoko dituzte. •

## Bide-hezkuntzaren garrantzia landu zuten

Bigarren urtez, Urbil Merkatal Guneko aparkalekuan ospatu zen larunbatean *Kontzientzia-zitu zaitez! Urritasunarekin ere gai zara* kanpaina. Michelin Lasarte eta Adecco fundazioak sustatutako egitasmo honek autoeskola berezia jarri zuen 6 eta 12 urte arteko urritasuna eta urritasunik ez duten haurrei zuzendua. Gainera, Lasarte-Oriako eta Usurbilgo udalen babesa izateaz gain, bertan baitziren Iñaki Mujita alkate ordea eta Xabier Mikel Errekondo, hainbat kirolari ezagunen babesa ere izan zuen. Bertan egon ziren Santi Idigoras, Abraham Olano, Josune Bereziartu eta Richar Oribe kirolariak haurrei bide-hezkuntzako hainbat aholku emanez.

Haur askok hartu zuten parte autoeskola berezi honetan, batzuk urritasunekin eta beste batzuk gabe, baina denak prest ikasteko eta

beraien trebezia gurasoei eta hurbildutakoei erakusteko.

Autoetan sartu aurretik gela didaktiko batean oinarriko azalpen teorikoa jaso behar izan zuten eta ondoren, haurrek kaskoa jantzi, autoetan sartu eta zirkuituan beraien abilezia erakutsi zuten. Autoan sartzerakoan gainera, Josune Bereziartu eta Abraham Olano egon ziren aholku batzuk ematen.

Autoen zirkuituaz gain, sentsibilizazioa lantzeko beste zirkuitu bat zegoen martxan. Honetan gurgildun aukietan eseri eta ibilbidetxo bat egin behar zuten, batzuk trebezia handiz egin zuten, beste batzuei ez zitzairen erraz egin. Bestalde begiak estali eta makil baten laguntzaz ibilbidea egiteko aukera ere izan zuten, itsuek kalean dituzten trabak nolakoak diren ezagutzeko aukera ederra izan zuten. •



Josune Bereziartuk eta Abraham Olanok hainbat aholku eman zizkieten haurrei autoetan ibiltzen hasi aurretik.



Baten batek komerik izan zituen gurgildun aukia zuzen eta nahi zuen lekura gidatzeko. Autoekin ere baten bat ez zen oso fin ibili.



# Punto-ko dardo jaurtitzaiak Holandan

- Judith Sieira eta Laura Gomez 501ean Europako txapelkun izan ziren Amateur B mailan
- Juan Mari Caballero eta Imanol Romero bosgarrenak izan ziren Master mailako Cricketean
- *Punto de Encuentro* tabernako 15 talde jokatzen ari dira urte honetan Gipuzkoako ligaxkan

Urriaren 7tik 10era Holandan, Sevenum herrian, izan dira Punto de Encuentro tabernan jokatzen duten hainbat jaurtitzaiak Europako 18. Dardo Txapelketan. Emaizarik onena Judith Sieira eta Laura Gomez bikoteak eskuratu du Amateur mailako 501 txapelketan lehenengoak izan baitziren. Iaz munduko Chicagoko txapelketan parte hartu zuten Master mailako Juan Mari Caballero eta Imanol Romero, aldiz, 5. izan ziren eta ez dute oraingoz berriro munduko txapelketara joateko txartelik lortu. Abenduan Lloret de Mar-en izango dute beste aukera bat.

Jon ALTUNA

Lasarte-Oriatik 40 lagun inguru abiatu ziren urriaren 5ean Holandako Sevenum herrira Europako 18. Dardo Txapelketan parte hartzeko. Dardos Easok antolatzen duen Gipuzkoako txapelketako jaurtitzailerik onenek lortu zuten Holandara autobusez joateko txartela. Jokalari bakoitzak bere mailako txapelketan jokatzen den, Master-pro, Master, Amateur A edota Amateur B eta Gipuzkoan emaitza onenak lortu dituztenek jokatzen zuten Europako txapelketa honetan.

Guztira *Puntoko* lau taldek izan zuten Holandara joateko aukera eta oro har emaitza onak lortu dituzte Europako txapelketa honetan, bertan izan ziren jokalarien maila altua kontutan izanik. Europako hainbat herrialdeetako jokalariek parte hartu zuten, besteak beste, Polonia, Noruega, Eslovenia, Frantzia, Belgika eta Italiakoek. Hala ere, Lasarte-Oriatik joan zen 40 lagun inguruko taldea zen handiena.

## Emakumeak txapeldun

Emaizarik onena Amateur B mailan lortu zuen Judith Sieira eta Laura Gomez neskek osatutako bikoteak. *Punto de Encuentro* bi jokalariek txapeldun izan ziren 501 izeneko modalitatean, baina maila honetakoek ez daukate Munduko txapelketara joaterik.

Amateur B maila honetan, Cricket modalitatean Carlos García eta David Trincado bikotea bigarren izan zen. Emaizta oso ona lortu zuten beraz *Punto de Encuentro* taldeko jokalariek.

Juan Mari Caballero eta Imanol Romero dira herriko jokalaririk onenariokoa eta txapelketa oso ona egin dute, azkenean 5. izan baziren ere.

Master mailan jokatu zuten. Pedro eta Miguel Castrorekin batera, maila honetako Españako txapeldunak dira taldeka eta iaz Chicagoko izan ziren munduko txapelketan. Lauen argazkia jarrita daukate *Punto de Encuentro* bi dianen erdian.

Aurreko asteko Europako txapelketan 5. postua lortu zuten eta ez dute iaz bezala Mundukoan lehiatzeko txartelik lortu. Dena den, abenduaren 4tik 7ra Gironan, Lloret de Mar herriko Guitart Monterrey Hotel eta Kasinoko aretoan egingo den Bullshooter Españako Txapelketan izango dute bigarren aukera.

## Gipuzkoako Ligan

*Punto de Encuentro*-ko 15 taldek jokatzen dute Gipuzkoako ligaxkan eta astelehenetik ostegunera iluntzetan ia astero izaten dute partida ofizialen bat. Sarri, Ligako norgehiagokak jokatzen dituztenean, normalean da tabernako dianatan 50 lagun inguru izatea. Larunbat gauean, txapelketa azkar antolatzen dituzte, banaka edo bikoteak, eta saria izaten da irabazlearentzat.

Maila oneko jokalaririk asko dabil *Punto* tabernan. Bi denboraldi dira urtean zehar, batean Europako txapelketarako sailkatzen dira onenak eta bestean Estatuko txapelketarako. Tabernan diren bi dianak ia etenik gabe daude martxan beraz, lehiaketako partidariak ez denean ere norbait ari baita jokatzen.

Asteazken arratsaldean, Emilio Varela eta Josean Godoy ari ziren Fran tabernariarekin batera lagun arteko lehiari. Lehenengo biak Holandan izan dira eta ederki ibili direla kontatu ziguten.

Eindhoven hiritik 45 kilometro dagoen Sevenum herriko Kanping batean egon



40 lagun inguruko taldea abiatu zen urriaren 5ean Hipodromoko Zubitik Holandako Sevenum herrira.

Arg.:TXIXIA VALLES



Emilio Varela eta Juan Antonio Godoy, Europako txapelketan izan diren herritar bi.

dira eta bertan jokatzen zituzten txapelketa ezberdinak. Asteartean 5ean abiatu ziren 40 lagunak Hipodromoko zubitik, 7tik 10era jokatu zen

txapelketa eta 12an itzuli ziren. Bitartean turismoa egiteko aukera ere izan dute eta besteak beste Amsterdam-en izan ziren. Taldean, Lasarte-

Oriako jokalariez gain baziren besteak beste Donostia, Errenteri eta Hernanikoak ere.

*Puntoko* Fran tabernaria bera da dardo lehiaketen bultzatzaile nagusi. "Nik zoritxarrez ez nuen joaterik izan. Ez nintzen "aukeratua" izan, soilik ondo jokatu eta sailkatu zirenik izan zuten joateko aukera".

Baina ona edo ez hain ona izan *Punto*-ko jokalariek garrantzia ematen diote egiten diren hartu emanei, "jokoak baino ingurukoak du balioa, egiten diren harremanak" esan digu Emilio Varelak. Fran tabernako nagusiak gehitu du dardo txapelketek jokalariei bidaizatzeko aukera ere eskaintzen diela "eta hemen ez da dopinaren aurkako kontrolirik, edozer hartu dezakezu jokatu aurretik". *Puntun* umorea badutela ezin ukatu. •

# www.txintxarri.info

@

Albisteak, agenda,  
argazkiak, zorion-agurrak,  
Txintxarri pdf-n...



Denboraldi hasiera ona egiten ari dira, Beñat, Mario eta Josu. Arg.: Gorka Aristegi

## Beñat Elizaldekin brontzeko domina lortu du Bartzelonan

Aurreko asteburuan LOKEko judoek hainbat lehiaketa izan zituzten Euskal Herririk kanpora: Beñat Elizalde Bartzelonan, kadeteak Pauen eta Mario Garrido Hondarribiko Ama Guadalupeko Allerru taldearekin Sizilian taldekako txapelketa batean.

### Brontzeko domina

Beñat Elizaldekin Bartzelonako Nazioarteko Txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen.

Sei borroka egin zituen lasarteoriatarak eta maila ona erakutsi zuela azpimarratu

digu Gorka Aristegi bere entrenatzaileak.

Brontzekoa, denboraldi hasiera honetan Elizaldeklortu duen bigarren domina da eta entrenatzailearen ustez, "prestakuntza ona egiten ari da txapelketa handiei begira."

### Bosgarren postuak

Bestalde, kadeteak Pauen egon ziren igandean, urriaren 10ean, eta Josu Olmosen bosgarren postua da nabarmen-tzekoa.

Era berean, Mario Garrido ere Ama Guadalupeko taldearekin bosgarren postua eskuratu zuen Sizilian. •

# Ohorezko ardoa Semblanteren VIII. Aste Kulturala hasteko

Semblante Andaluz Andaluziako Elkarrekin bere VIII. Aste Kulturala antolatuko du. Gaur hasi eta igandera arte iraungo duen jaialdi honek era eta gustu guztientzako ekintzak izango ditu.

Honela, aste kultural honi hasiera emateko gaur arratsaldeko 19:00etan, lunch-a eta ohorezko ardoa eskainiko zaie elkartera hurbiltzen diren bazkide, lagun eta gonbidatuei.

### Lehiaketak eta hitzaldia

Astean zehar, hainbat lehiaketa antolatu ditu elkarrekin bere egoitzan.

Asteartean, mus txapelketa egongo da eta asteazkenean, tute txapelketa. Ostegunean, berriz, 18:00etatik aurrera, patata tortila eta potora tiratzeko lehiaketa egongo dira.

Egun honetan, gainera, *Futbola Lasarte-Orian* hitzaldia eskainiko du Mikel Etxarri entrenatzaile eta kirol-esatariak.

### Haurren eguna

Ostiralean, haurren arratsaldea izango da. Lehenik, 18:00etatik aurrera, marrazki



Antonio Pedraza lehendakariak iaz Andaluziako feria desberdinei buruz hitz egin zuen.

lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute elkartera hurbiltzen diren haur eta gaztetxoek.

Ostean, pailazoaren emanaldiarekin ederki gozatuko dute, baita elkarrekin prestatuko dituen txokolate eta txurroekin ere.

### Emanaldiak eta bazkaria

Azpimarratzeko beste ekintzak elkarteko taldeen emanaldiak izango lirateke, batetik larunbatean, Semblan-

te Rociero koruarena eta besetik, igandean Duende Flamenko taldearena.

Hau igandean antolatu den, herri bazkariaren ostean izango da. Arratsalde honetan, gainera lehiaketa saribanaketa egongo da. Eta asteari amaiera emateko, salbe rozieroa eta Andaluziako ereserkia abestuko dira.

Antolatzaileek, jendeak hauetan parte hartzea animatu nahiko litzuzke, baita beste ekitaldi-dieta gerturaz ere. •

## Giro ederra Jalgin Mantis taldearekin

Ostiral gauean Mantis taldeak kontzertua eskaini zuen Jalgi kafe-antokian. Talde hau Zarautzen sortu zen orain 6 urte eta bere lehen diska Gor disketeak argitaratu berri die, laukoteak bizitakoak jasotzen dute hamasei abestiek; musika eta letren bidez forma eman diete esperientzia horiei. Josu Gonzalez, Ganix Illarremendi, Inigo Azkue eta Inaki Castorren asmoa buru-belarri zuzenekoekin aritzea da eta horren islada ostiraleko kontzertua. Giro ederra jarri zuten, gogoz eta indartsu aritu baitziren eta ikusleek ederki gozatu zuten emanaldia. •



Gustura aritu zen Mantis, talde zarauztarra Jalgi emanaldian.

## Afrikari begirada

Prosalus GKEak *Afrika eta Milurtekoaren garapen helburuak* erakusketa ekarri du Lasarte-Oriara.

Elkarte honek Afrikako hainbat herrialdeetan egindako argazkiak ikusteko aukera egongo da Manuel Lekuona kultur etxean asteartetik urriaren 28ra arte, 18:00etatik 21:00era.

### Erakusketa

Estatuko hainbat hirietan egon den erakusketa honetan, kultura desberdinen aberastasunak, folkloreak eta tradizioetako baloreak aur-

kezten zaizkie ikusleei.

Era honetara, Afrikaren errealitatea ezagutu eta kultura hauekiko jarrera positiboa sortu nahi du Prosalusek ikuslengan.

Era berean, irudi horien guztien bidez, Afrikak Milurtekoaren garapen helburuak betetzeko dituen erronkak ere ezagutuko ditu erakusketa honetako ikusleak.

Gaurko munduan irudiak duen garrantzia kontuan hartu du Prosalusek eta helburua, esperientzia estetiko baten bidez, ikusleengan erantzun etiko bat sortzea da. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



## Egunero

### Erakusketa

HEGOALDERA BEGIRA, Irati Bergararen argazki erakusketa urria osoan. Irati *Aprendeak Euskadiko* kidea da. Jalgi kafe-antozkian, egun osoan zehar.

### Erakusketa

PROSALUS GK Eren erakusketa ikusgai urriaren 19tik 29ra bitartean. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

## Asteazkena, 20

### Hitzaldia

FIBROMIALGIAREN Gipuzkoako Elkartearen hitzaldia. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

## Ostirala, 22

### Kontzertua

WHA WHA BUGA BAND taldearen emanaldia Xpression eta Udalaren hitzarmenaren baitan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

## Larunbata, 23

### Antzerkia

TXIRULARI MAJKOA haurrentzako antzerkia eskainiko du Teatro Paraiso antzerki taldeak. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 18:00etan, **EUSKARAZ**

## Igandea, 24

### Zinea

MARMADUKE haurrentzako filma eskainiko dute. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 17:00etan. **GAZTELANIAZ**



## Ipuin kontalaria haurrentzat

IPUINAREN ORDUA Koruko Zurutuza ipuin kontalariaren eskutik 6, 7 eta 8 urteko haurrentzat. Haurren urteak errespetatu egin behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira haurren liburutegian.

ASTEAZKENEAN, HILAREN 20AN  
KULTURETXEAN 18:00ETAN  
EUSKARAZ

## Astelehena, 25

### Ipuin-kontalaria

IPUINAREN ORDUA Pello Añorgaren eskutik 4 eta 5 urteko haurrentzat. Urteak errespetatu behar dira eta haurrak bakarrik egongo dira. Kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etatik aurrera. **EUSKARAZ**

## Asteazkena, 27

### Kontzertua

LIEPATES neskez osaturiko haur abesbatzaren emanaldia. Sarrera doan. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.

## Osteguna, 28

### Zinea

PRECIOUS filma ikusgai Okenedo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,20 euro. Manuel Lekuona Kulturetxean, 21:30etan. **GAZTELANIAZ**

## Ostirala, 29

### Antzerkia

MORTIMER antzezlan izango da ikusgai. Clown formatuko lan batekin dator oraingoan Kukubiltxo antzerki taldea. Jalgi kafe-antozkian, 23:00etan, **EUSKARAZ**

## Semblante Andaluz Elkartearen VIII. Aste Kulturala

### Astelehena, 18

19:00etan, LUNCHA ETA OHOREZKO ARDOA.

### Asteartea, 19

19:00etan, KARTETAKO TXA-PELKETA: Musean.

### Asteazkena, 20

19:00etan, KARTETAKO TXA-PELKETA: Tutean.

### Osteguna, 21

18:00etan, PATATA TORTILLA lehiaketa

18:30etan, POTORA tiratzeko lehiaketa

19:30etan, FUTBOLA LASARTE-ORIAN hitzaldia Mikel Etxarriekin

### Ostirala, 22

18:00etan, HAURRENTZAKO MARRAZKI lehiaketa

18:30etan, PAILAZOAK eta txokolate jana

### Larunbata, 23

18:30etan, SEMBLANTE ROCIERO abesbatzaren saioa

### Igandea, 24

14:30etan, HERRI BAZKARIA

18:00etan, DUENDE FLAMENCO taldearen dantza-saioa

19:00etan, SARI BANAKETA eta amaitzeko salbe rozieroa eta Andaluziako ereserkia abestuko dira.

## Eskutitzak

### 10 milioi baino gehiagok egin zuten greba

Greba orokorra arrakastatsua izan da. Industrian, erakuntzan, garraioan, Estatu osoan, hainbesteko gehiengoak jarraitu du gobernua berak onartu egin behar izan duela. Madrilen eta Valladoliden (Michelin) poliziak eraso eta zikindu egin zuten piketean egitea grebarik zabalenean, elkartuenean eta liskar gutxien izan ditue-nean. Euskadin ELAK eta LABek parte ez hartzeak kalte-tutu egin zuten grebaren masibotasuna. Manifestazioak orain arte izan diren handienetarikoa izan ziren, 500.000 lagun Madrilen, 400.000 Bartzelonan eta 2 milioitiki gora estatu osoan.

Berriro ere langileen mugimendu sindikala buru jarri da kapitalismo harra-patzaile eta bere instituzio- en neurri antisozialen aurka, hala nola FMI edo europako eta munduko banka. Europar ekintza eguna hainbat manifestazio eta ekintza eta Europako hainbat lekutatik iritsitako 100.000 pertsonen Bruselan egungo kontzentrazioan bihurtu da.

Zapatero gobernua, milioika langileek emandako botoekin jarria, suntsitze- r bideratuta dago, izan ere, merkatu finantzioerok markatzen dutena aplikatzen du eta gainera hauen aurrean makurtu egiten da. Krisi finantzioarekin milaka empresa suntsitu eta langile- ria hondoratu zuten horiek krisia azpikoek ordaintzea nahi dute, baina beraien desioen aurka, mugimendu sindikala erreakzionatzen hasi da. Irailaren 29ko greba orokorra lehenengo eskaile- ra-maila da.

Eta orain zer? Ez dugu erne egoteari utzi behar gobernua hertsitasunaren aurrean, irailaren 29ko greba orokorra langilearen egoeraren aldatzeko aldeko lehenengo pausua izan da. Orain inoiz baino gehi- ago egin behar dugu lan elkar- rrekin, dagoen banaketa sindikal hau gaindituz, presionatzen jarrituz proposa- menekin krisi honek bidezko iteera izan dezan.

Lan erreforma kanpora! Erretiroaren adina 67 urte arte luzatzei ez! Erretiratu ahal izateko kotizazio urteen kopurua luzatzei ez!

ERREDAKZIOAK ITZULIA

**Lasarte-Oriako Michelineko  
ESK sindikatua**

## Oharrak

### Oztabide elkarteko loteria

Oztabide auzo-elkartek Arranbide-Oztaraneko auzo- tarrei jakin arazten die eguber- ritako loteria salgai dagoela. 19108 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteria partaidetzak dira hartu daitez- keenak. Loteriako partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta COVIRAN supermerka- tuan (Ozتان enparantzan) erosi ahal izango dituzte.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza- gaustei aurre egiteko baliabi- de hau bakarrik daukala elkarteak.

### 62an jaiotako enafaria

1962. urtean jaiotako lasar- tearrentzat afari bat antolatu dugu azaroaren 13rako, Dana-Ona jatetxean. Intere- sariak 40 euroko diru sarrera egin behar dute, azaroaren

Serako, honako kontu korron- te zenbakian, 3035 0036 17 0361127028. Argibide gehi- agorako, deitu: 646 274 376 (Bea) /659 950363 (Rexu). Anima zaitetz!

### Diru-laguntzen eskaerak

Lasarte-Oriako Udaleko Gizar- te Zerbitzuetako, Enplegu eta Kooperazioko Departam-entuak gizarte-ongizatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die gaur irekiko dela sail honek eman ohi dituen diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea.

Horretarako eskariak Uda- letxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, 9:00etatik 13:30era bitartean, eskatutako agiriarekin batera, hau da, memoria, gastuen justifikazioa eta jardueren proposamena.

Hori guztia aurkezteko epea urriaren 24era egongo da irekia.

### Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diru- zorroa, urrezko katea, zilarr- rezko zintzilarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketar- kin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pultsera eta kami- seta beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrak, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuska- tzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

### Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info

## Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri Txintxarri aldizkari- ra. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

# Kukukaren alde dantzan eta kantuan

Urriaren 30ean Zubietan jaialdia eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek

Landaberi Dantza eta Antzerki eskola bezala sortutakoa, aurten Kukuka elkarteak bilakatu da. Zortzi urteko ibilbidean, gero eta ikasle gehiago ditu eta mugimendu handia eragin du: aurten 650 ikaslelik gora dira eta hauen ikasle kopuruak gora egin duen bezala, baita gastuek ere. Proiektu herrikoia den heinean, finantzaketan herri guztiak parte hartzea ezinbestekoa du. Diru laguntza apurrak eta ikastaroen kuotak ez dira nahikoa, eta beraz Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek emanaldi berezia antolatu du Kukukak urriaren 30ean, Zubietan. Pailazoekin batera herriko elkarre eta talde ezberdinak dantzan jarriko dira.

## TXINTXARRI

Euskararen kultura, pertsonen garapen kulturala eta elkar-lana bultzatzea du helburu Kukuka antzerki eta dantza eskolak. Ikasturteari hasiera emateko eta herriarekin partekatze hileren 30ean Zubietan Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek eskutik dirua lortzeko jaialdia antolatu dute.

Zortzi urte dira herriko antzerki eta dantza eskola eratu zenetik. Urteko urtera parte hartzaileen kopurua gora egin du. Iaz 500 ikasle inguru izan zituzten, eta aurten matrikulazioetan errekorra lortu dute, 54 talde daude herrian eta ikasle kopurua 650koa da. "Gure helburua betetzen ari da: antzerkia eta dantza euskaraz eginez gozatzeko" adierazi dute Kukukako zuzendaritzakok.

Aurten, dantzari dagokionez, berrikuntza bat bada: dantza garaikidea eta sorkuntzako dantzarekin batera dantza tradizionala jorratzen dute eta "aurten gazte asko apuntatu dira" azaldu digute. Guztira 26 dantza talde dira eta horregatik, pozik agertu da zuzendaritza, "pozik gaude dantza munduan gero eta jende gehiago murgiltzen ari delako".

Beraz, gero eta ikasle gehiago dira Kukukaren parte, eta zuzendaritzak ez daki "non egongo den muga".

## Iman efektua

Horretaz gain, herritar asko dira Antzerki eta Dantza asteen ikasle gisa parte hartzen dutenak ere. "Iaz dantza ekitaldietan jendea lekuri gabe geratu zen, kanpoan, eta antzerki emanaldietan, berdin" esan dute.

Iman efektua aipatu dute Kukukako zuzendaritzako kideek, ikasle asko ikasle izatera pasa direla aurten. Taula gainean jendea gozaten ikusteak animatzen ditu

Kukukaren ustez: "ikusleak horretaz jabetzean konturatu dira eurak ere hori egin dezaketela". Edonoren esku dago dantza eta antzerki aritzea "eta gainera oso osasungarria eta garrantzitsua da zure garapen pertsonalerako".

Antzerkia eta dantza mundua ezagutzeko zer hobe barrutik egitea baino. Zu zeu zara protagonista "urte osoan zehar landutakoa jendearen aurrean erakustea emaitza oso pozgarriak eragiten ditu eta hori erraz sumatzen da" azaltzen dute.

## Zabaltzen

Landaberi ikastolan hasi ziren, aurreko urtean SasoetaZumaburu ikastetxera zabaldu ziren, eta aurten institutura "herriko ikastetxe guztietan dugu presentzia". Gainera, euskaraz, "gure kulturaren parte inportante den hizkuntza".

Urte hauetan egindako lanak bere fruituak eman ditu eta horren erakusgarri da herriko taldeak herriko kanpo euren ikuskizunak eskaintzen hasi direla.

Hiru urtetan Azpeitiko topaketan parte hartu dute, Antzerkizale elkartearen aurkezpenean ere herriko taldeak parte hartu zuten Bilbon "eta hurrengo urtean, uztailean, Lekeition ospatuko den kale antzerki jaialdian Mikel Laboaren abestietan oinarritutako muntaia egiteko eskatu digute".

## Diruaren beharra

Gazte eta helduen kuotak, eskoletako guraso elkartearen laguntza, Foru Aldundiaren diru-laguntza "eta udaletxeak ematen dizkigun 1.000 euroak ditugu finantziario iturri". Aurten gainera, herriko udalaren kulturetxea erabiltzearen kobratu egin du beraz "beste diru iturri batzuk behar ditugu aurrera ateratzeko". Honela, hileren 30eko jaialdia antolatu dute eta 2011ko egutegi berezia egin eta salduko dute. •



Herria ortzadar erraldoi bihurtu da azkeneko bi urteetan, Antzerki eta Dantza asteari ongiertoria emateko.



## Irrien lagunak: emanaldi berezia

Kukuka antzerki eta dantza eskolari lagundu nahian Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Irrien Lagunak* ikuskizuna eskainiko dute urriaren 30ean Zubietako frontoian arratsaldeko 18:00etan.

Ikasturteari hasiera indartsua eman nahi izan diote eta pailazo hauen eskutik lortuko dute. Gainera, ez dira pailazoak soilik izango dantzatu eta kantatuko dutenak. Antzerki eta dantza elkarteak helburuetako bat, elkarlana

bultzatzea da eta horregatik, Lasarte-Oriako 12 elkarteek ere parte hartuko dute jaialdian. Besteak beste, Semblante Andaluz, Beltzakeko rugbyleriak, Ostadar, Ttakun, Xumela, Gure Ametsa eta Bertso Eskola.

Talde bakoitzak prestatutako dantza pailazoek ikuskizunaren barruan txertatuko da. Eta, gainera, hurbildutako ikusleak jolastera gonbidatuko dituzte.

Bukaeran antzerki eskolako irakasle eta zuzendari-

tza batzordeko kideak ere dantzan ikusteko aukera egongo da.

Ikuskizun polita eta helburu zehatz batekin, Kukuka antzerki eta dantza eskolako dirua lortzea.

Orotara mila sarrera jarriko dira salmentan, 6 euroren truke, Lasarte-Oriako Jalgi eta Artizar tabernetan eta Usurbilgo Bordatxo tabernan. Kukuka Eskolari laguntzeko, dantza egin eta ondo pasatzeko aukera ederra urriaren 30ean. •